

**Ramadaneko azken
asteburuan 27
aljeriar hil
dituzte talde
islamistek**

■ *Futbol jokalaria ohi
bat eta sei hilabeteko
haur bat daude
hildakoen artean*

Agentziak / Aljer

ASTEBURU honetako *Aid el Fitr* jaiak amaiera eman dio Aljerian musulmanen hilabete sakratuari, baina talde islamistek leporatzen zaizkien 27 hilketek ilundu egin dute jaiak. Ramadan osoan, Aljeriako egunkarien arabera, ia 400 lagun hil dituzte talde armatuek, horietatik 27 ostiraletik igandera bitartean.

Ostiralean, Aljer hiriburuan, meskita batetik irten berri zela, Mohamed Madani nazioarteko futbol jokalaria ohi hil zuten tiroz hiru pertsonak. Egun berean, Aljer bertan, bi familiatako 14 lagun lepoa moztu zieten talde islamista bateko ustezko erideek. Polizia agiri batzuk erakutsiz etxera sartzen saiatu zirenean, atea itxi zieten barrukoek, baina leihotik sartu eta etxeko guztiak hil zituzten, horien artean 60 urtetik gorako bi emakume.

Larunbatean, Blida eskualdeko Meftah herrian, bi lagun hil zituzten eta zazpi zauritu meskita batetik irten zirenean. Hiriburuan, *Aid el Fitr* jaiaren ohizkoak diren opilak sendikoei ematera zihoazen guraso batzuk eta euren sei hilabeteko haurra hil zituzten kalean. Igandean Medea erregioko Draa Semmar herrian jazotako sei lagun hilaketa ere talde islamistek leporatzen zaien.

Islamisten hilabete sakratuan gertatu diren 300 hilketetatik gehienak Aljer hiriburuan, Medea eta Blida eskualdeetan izan dira. Aljerren bertan, Poliziaren kontrolak gehitzearekin batera, autoen aparkatzea debekatzeko neurri zehatzak hartu dira bonba-autoen beldurrez.

Hiriburuko egunkarien arabera, Aljerko hilerriek ere igarri dute Ramadanean egon den hilketen igoera. *Libert* egunkariak El Alia hilerriko lurperatzaile baten hitzak jasozituen: «Ezin dugu gehiago, lanak itota gabilta; egiten ditugun zuloak ez dira nahikoa egunero iristen den hilotz kopuruarentzat».

Bestalde, Liamine Zeroual lehendakariak bilerara deitu ditu gaur oposizioko alderdi-tako ordezkariak, Legebiltzar-erako hauteskunderen zainketari buruz eztabaidatzeko. Hocin Ait-Ahmed Indar Sozialisten Fronteko —oposizioko talde garrantzitsunetako bat da— liderrak atzo esan zuen ez dela gaurko bilerara agertuko. Hauteskunde hauek ez dute oraindik data ofizialik, baina Zeroualek aurtengo lehen sei hilabetekoa amaitu baino lehen egingo direla hitzeman zuen. X

Rosalía Arteaga Lehendakari-za jauregiko balkoi batetik jendea-ri agur egiten. ELDER BRAVO EPA



Ekuadorko diputatuek lehendakari berria aukeratzeko saioa egingo dute gaur

Alarcon da Ekuadorko behin-behineko Lehendakaritzan Arteaga ordeztzeko faborito

Krisi instituzionala nolabait lasaitu den arren, Ekuadorko etorkizuna zalantzan dago oraindik. Lehendakari ustez egun batzuetarako soilik zen Arteagari buruzko susmoak zabaldu egin dira bere adierazpenen ondoren. Bestalde, Kongresua gaur bilduko da ondorengo behin-behineko estatuburu aukeratzeko.

Agentziak / Quito
ABDALA BUCARAM Erosa Salinas bainaute batean dago atsedean hartzen, eta Rosalía Arteaga da behin-behineko lehendakaria igandean gerostik, Ekuadorko Kongresuak beste behin-behineko estatuburu bat izendatu bitartean. Aditu gehien ustez, Fabian Alarcon Kongresuko lehendakariarentzat izango da postua. Hala ere, zenbait parlamentariok uste dute Rosalía Arteagak ez duela berehala utziko kargua, adierazpenetan epe luzera hitz egin baitu lehendakariorde ohiak. Gainera, Armada alde omen du Arteagak, zenbait adituren arabera. Hain zuzen, Armadak bultzatu zituen bai Arteaga bai

Alarcon akordio bat lortzera. Baina akordio horretan dago orain arazoaren gakoetako bat: noiz aukeratu du Kongresuak Arteagaren ondorengoa? Behin-behineko lehendakari ofizialak, Arteagak, esan du kargua utziko duela Kongresuak estatuburu bat aukeratzeko ahalmena lortzen duenean. Horrek Konstituzioaren aldaketa eskatuko luke, eta horretarako 82 diputatu bi herenak beharrezkoak dira. Aldiz, Arteaga estatuburu izatea ahalbidetu zuen akordioan jasotzen da gehiengo absolutua soilik, 42 boto, izango dela beharrezko. Alarcon hiru egunetan Ekuadorko hiru lehendakarietako bat izan da, Bucaram eta Arteagarekin batera, Bucaram kargutik

kendu ondoren Alarcon bera izendatu baitzuen Kongresuak Ekuadorko lehendakari. Krisia konpontzeko Bucaramen bi etsaiek hitzartutako akordioak Arteagari eman dio oraingoz Lehendakaritza, eta ondoren Alarcon izango zen behin-behineko estatuburu, bera baita Kongresuan irabazteko posibilitate gehien duena, berak dienez 50 diputatu alde baititu. Hori hala balitz, hitzartutako akordioaren arabera, Arteaga litzateke berriz ere lehendakariorde. Ez dago argi Kongresuak gaur bertan hartuko duen erabakia edo eztabaidak egun batzuk iraungo duen. Baina Fabiano Alarconi beste etsai bat agertu zaio bidean: Carlos Solorzano, Auzitegi Goreneko lehendakaria. Konstitu-

zioak kargu hori izendatzen du bigarren lehendakaria ordeztzeko estatubururik ez dagoen kasuetan, Kongresuko lehendakariaren ondoren. Solorzanori krisian izan duen jarrera diskretuak mesede egin dio, ez baitzuen inolako posiziorik hartu, ez iritzirik eman. Armadari «herriaren deia» entzuteko soilik eskatu zion. Prentsa iturrien aburuz, militarrek nahiago dute Solorzano Alarcon baino, duen zuhertasunarengatik. Kongresuak aukeratu duen lehendakariaren lana izango da 1998ko hauteskundeak antolatzeko, orduan aukeratu du herriak Ekuadorko lehendakari berria. Zenbait hautagai jada hasi dira prestatzen. Bucaram Erosak esana du hauteskunde horietara aurkeztuko dela, eta ziurtzat jo du garaipena. Haren ustez, jazo den «hondamendi ekonomikoak belauniko etorrazaziko dituzte guztiak» Gubernura itzul dadin eskatuz.

Indar armatuen ustezko neutraltasuna

Erredakzioa / Donostia.- Ekuadorko Armada «neutral» mantenduko zela iragarri zuten indar armatuetako buruzagiek, Joan den astean krisi politikoa piztu zenean, eta herria zuzenduko zuen estatuburu izendatzeko auzia politikarietan konpontzeko deia egin zuen. Hala ere, ez du hitza bete. Hasieratik jakina zen lehendakari-za aldarrikatzen zuten hiru agintariek

ez zutela zer eginik izango indar armatuen sustengurik gabe. Halaxe gertatu da. Abdala Bucaram eliminatu zuten eta Fabian Alarconen eta Rosalía Arteagaren arteko konponbide negoziatua bultzatu zuten buruzagi militarrek. Horrela Arteaga behin-behineko lehendakari izendatu zuten eta Alarconek Arteaga ordezkatzeko aukera handiak ditu. Militarren inguruko iturrien

arabera, bien artean Bucaramekin lehendakariorde izandako emakumea nahiago dute buruzagi militarrek, eta euren esku balego ez lukete orain izendatutako kargutik kenduko. Izendapenaren ostean, Francisco Moncayo jeneralak indar armatuen neutraltasuna aldarrikatu zuen berritoki. Baina neutraltasun hori segituan baztertu zuten,

Moncayok, bat-batean, Victor Manuel Baya Garcia, Bucaramen gobernu-ko Defentsa ministroa, kargutik kendu zuenean. Kargutik kentzeko arrazoia Garciak, Bucaramen aginduz, larrialdi egoera ezarri zuela izan zen. Baina denek argi ikusten dute, Ekuadorren, indar armatuek Bucarami sustengua kentzeko arrazoia lehendakari ohiak urtarrilean Perura egin zuten

bidaiaren egunik adierazpenak izan zirela. Liman Bucaramek esan zuen bi aldeek barkamena eskatu behar zutela 1995ean mugan izandako borroka armatuarengatik. Hitz horiek min handia egin zuten Ekuadorko sektore nazionalistari eta indar armatuei: haien ustez Ekuadorrek ez dauka barkamena eskatu beharrik, bera izan baitzen erasoaren jasan zuena. X